

1. Askatu grafikoki sistema hauek:

$$\text{a. } \left. \begin{array}{l} x + 2y = 6 \\ x - 2y = -2 \end{array} \right\}$$

$$\text{b. } \left. \begin{array}{l} x + y = 0 \\ x - y = -2 \end{array} \right\}$$

$$\text{c. } \left. \begin{array}{l} x + y = 5 \\ x - y = 3 \end{array} \right\}$$

$$\text{d. } \left. \begin{array}{l} 2x + y = 13 \\ x - y = 2 \end{array} \right\}$$

2. Askatu sistema hauek:

$$\text{a. } \left. \begin{array}{l} x + y = 8 \\ x - y = 8 \end{array} \right\}$$

$$\text{b. } \left. \begin{array}{l} 2x + y = 13 \\ x - y = 2 \end{array} \right\}$$

$$\text{c. } \left. \begin{array}{l} x - 5y = 6 \\ 4x - 3y = 1 \end{array} \right\}$$

$$\text{d. } \left. \begin{array}{l} x + 2y = 0 \\ 2x + 4y = 6 \end{array} \right\}$$

3. Askatu sistema hauek:

$$\text{a. } \left. \begin{array}{l} 2x + 3y = 5 + x + 2y \\ x - 2y - 3 = 3 - 42y \end{array} \right\}$$

$$\text{b. } \left. \begin{array}{l} 3y + 3 = x - 2(x + y) \\ \frac{2x + 3y}{2} = 18 \end{array} \right\}$$

$$\text{c. } \left. \begin{array}{l} x + y = 2 \\ (x + 4) + 2(y - 2) = 18 - x - y \end{array} \right\}$$

4. Ebatzi sistema hauek eta sailkatu, ebazpen kopurua kontuan hartuta.

a.
$$\begin{cases} x + y = 5 \\ x - y = 3 \end{cases}$$

b.
$$\begin{cases} x + y = 7 \\ x - y = 5 \end{cases}$$

c.
$$\begin{cases} x + 2y = 3 \\ 2x + 4y = 6 \end{cases}$$

d.
$$\begin{cases} 2x + y = 13 \\ x - y = 2 \end{cases}$$

e.
$$\begin{cases} x + y = 6 \\ 2x - 2y = 12 \end{cases}$$

f.
$$\begin{cases} x - 3y = 2 \\ 3x - 2y = 6 \end{cases}$$

5. Ebatzi eta sailkatu sistema hauek.

a.
$$\begin{cases} \frac{x}{2} - \frac{y}{3} = 2 \\ 3x - 2y = 6 \end{cases}$$

b.
$$\begin{cases} x - y = 1 \\ 2x - 2y = 1 \end{cases}$$

6. Ebatzi, ordezkatzeko metodoa erabiliz.
$$\begin{cases} x + y = 5 \\ x - y = 3 \end{cases}$$

7. Ebatzi ordezkatzeko metodoaren bidez eta adierazi bateragarria ala bateraezina den.

$$\begin{cases} x + y = 8 \\ x - y = 8 \end{cases}$$

8. Ebatzi ekuazio-sistema hauek, berdintze metodoari jarraituta.

a.
$$\begin{cases} x + y = 5 \\ x - y = 3 \end{cases}$$

b.
$$\begin{cases} 2x + y = 13 \\ x - y = 2 \end{cases}$$

9. Ebatzi berdintze metodoaren bidez eta adierazi bateragarriak ala bateraezinak diren. Zenbat ebazpen dituzte?

a.
$$\begin{cases} 2x + 5y = 10 \\ 4x + 10y = 20 \end{cases}$$

b.
$$\begin{cases} 2x + y = 8 \\ 2x + y = 12 \end{cases}$$

10. Ebatzi laburtze metodoaren bidez.

a.
$$\begin{cases} x + y = 5 \\ x - y = 3 \end{cases}$$

b.
$$\begin{cases} x - 5y = 6 \\ 4x - 3y = 1 \end{cases}$$

11. Ebatzi ekuazio-sistema hauek laburtze-metodoaren bidez, eta adierazi

bateragarriak ala bateraezinak diren.

$$\begin{array}{l} \text{a. } \left. \begin{array}{l} x + 2y = 0 \\ 2x + 4y = 6 \end{array} \right\} \\ \text{b. } \left. \begin{array}{l} x - y = 5 \\ 2x - 2y = 10 \end{array} \right\} \end{array}$$

12. Ebatzi, metodorik egokienari jarraituta.

$$\text{a. } \left. \begin{array}{l} \frac{x}{3} + \frac{y}{5} + \frac{2x - y}{2} = 5 \\ \frac{x - y}{2} + 1 = \frac{5x}{6} - 6 \end{array} \right\}$$

$$\text{b. } \left. \begin{array}{l} \frac{x + 4y}{5} - \frac{3x}{2} = \frac{8y - 13x}{10} \\ \frac{3x + 5}{2} = \frac{10y + 7}{3} \end{array} \right\}$$

$$\text{c. } \left. \begin{array}{l} 4x + 3(y - 1) = 5 \\ 3(y - 1) = 2x - 7 \end{array} \right\}$$

$$\text{d. } \left. \begin{array}{l} \frac{2x - y}{3} + 2x - y = 4 \\ 2x - y = 4 \end{array} \right\}$$

13. Fernandok eta haren aitak 40 urte dituzte bien artean. Aitaren adina semearenaren 7 halako da. Zenbat urte ditu bakoitzak?

14. Azterketan, 10 galderari erantzun diet. Erantzun zuzenek bi puntu batzen dituzte, eta okerrekek, bat kentzen. 8 puntu lortu ditut; zenbat erantzun zuzen eman ditut?

15. Hotel batean 120 gela daude, banakoak eta bikoitzak kontuan hartuta. Ohe kopurua guztira 195 bada, zenbat gela bikoitz ditu hotelak? Eta zenbat banako gela?

16. Pertsona bakoitzak 5 pastel jaten baditu, 3 pastel daude sobera; 6 janez gero, ordea, 1 falta da. Zenbat pertsona eta zenbat pastel daude?

EKUAZIO-SISTEMAK

17. Erosketa bat ordaintzeko, 2 €-ko txanponak eta 5 €-ko billeteak erabili dira. Guztira, txanponak eta billeteak 13 dira, eta 32 € ordaindu dira? Zenbat 2 €-ko txanpon erabili dira? Eta 5 €-ko zenbat bilete?

18. Drogeria batean 3 xaboi-pastilla eta 2 flasko kolonia 12 €-an daude salgai, bai eta 4 xaboi-pastilla eta 3 flasko kolonia ere, 17 €-an. Kalkulatu gai bakoitzaren prezioa.

19. 0,26 € eta 0,84 € balio duten zigiluak erosi ditugu. Guztira, 11 zigilu 5,18 € ordaindu ditugu. Zenbat dira 0,26 €-koak? Eta 0,84 €-koak?

20. Urdaiazpiko-ogitartekoak erosi ditugu, 2,80 €-an, eta gazta-ogitartekoak, 2,50 €-an. Guztira, 48 € ordaindu ditugu 18 ogitartekoak. Zenbat urdaiazpiko-ogitarteko erosi dira?

21. Lantegi batean 50 ibilgailu daude, motorrak eta autoak kontatuta. Gurpil kopurua guztira 140 bada, mota bakoitzeko zenbat ibilgailu daude?

22. Lur-sail laukizuzen baten perimetroa 350 m da, eta luzeraren hirukoitza zabaleraren laukoitza da. Zer neurritakoa da lur-sail hori?

23. Josebak Inexari esan dio: «10 disko emango banizkizu, nik hainbeste izango zenituzke». Inexak erantzun dio: «Zuzen zabilta. 10 disko baino ez zaizkizu falta, nik halako bi izateko». Zenbat disko ditu bakoitzak?

24. Autoak alokatzeko enpresa batek bi modelo eskaintzen ditu, bata lau eserlekukoa, bestea bostekoa. Egun batean, enpresak 10 auto alokatu ditu; auto horietan 42 pertsonak bidaiatu dute, eta bi eserleku hutsik geratu dira. Mota bakoitzeko zenbat auto alokatu zituzten?